

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresak bezeroekin harreman mistoa ezarriko du, zerbitzu automatizatuak eta laguntza pertsonala uztartuz. Bezero berriak erakartzeko, gure produktua herriko jaietan, kontzertuetan eta ekitaldi jendetsuetan sustatuko dugu, batez ere sare sozialen eta webgunearen bidez.

Bezeroek app bat erabiltzeko aukera izango dute. App honetan talde pribatuak sortu eta arazoak modu autonomoan kudeatu ahal izango dituzte. Horrek autozerbitzuan eta zerbitzu automatizatuan oinarritutako harremana bermatzen du.

Aldi berean, bezeroei laguntza pertsonala online eskainiko diegu, aplikazioaren barruko laguntza-sistemaren bidez edo korreo elektronikoaren bitartez, erabileran sor daitezkeen arazoak konpontzeko.

Bezeroak gure proiektuari lotuta mantentzeko, erabiltzaileen komunitate digital bat sortuko dugu, non bezeroek esperientziak partekatu eta hobekuntza proposamenak egiteko aukera izango dute. Horrela, bezeroak gure negozio ereduan aktiboki integratuko ditugu.

Gainera, bezeroekin harreman hori izanda, etorkizunean harpidetzaren bidez zerbitzu gehiago eskaini ahal izango dira, hala nola aplikazioaren funtzio gehiago edo ekitaldi berezietarako zerbitzuak.